**Hirugarrena.-** 2019ko otsailaren 8an, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen lizitatzailleentzako iragarki bat, non jakinarazten zitzaizen kontratuaren xede ziren instalazioak bisitatzeko aukera izango zutela. Horretarako bi data jarri ziren: otsailaren 12a eta 15a.

**Laugarrena.-** Behin proposamenak aurkezteko epea igarota, 2019ko martxoaren 25ean kontratazio mahaia bildu zen erreferentziako emakida lizitazioaren "1" gutun-azala ireki eta bertan zegoen dokumentazioa kalifikatzeko helburuarekin.

**Bosgarrena.-** Mahaiak ekin zion aurkeztutako proposamenen gutun-azalak irekitzeari, proposamenak Udaletxeko erregistroan aurkeztutako ordenari jarraituta. Hauek izan dira proposamenak:



- AZKONARRA, S.L. (B-75216093).
- SAN COSME Y SAN DAMIAN, S.L. (B-20611472).
- ORBELA TABERNA, S.L (B-75160812) y SONIA TAPIA IGLESIAS (xx.x82.37x-x),  
eratu beharreko ABEEa.

**Seigarrena.-** Apirilaren 8an, kontratazio mahaiak erabaki zuen, SAN COSME Y SAN DAMIAN, S.L. enpresa lizitaziotik kanpo uztea.

**Zazpigarrena.-** 2019ko ekainaren 17an, kontratazio mahaiak kontratazio organoari proposatu zion ORBELA TABERNA Y SONIA TAPIA, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, FRONTON U.T.E. con CIF U-75221770 enpresari esleitzea kontratua, hogeita hamahiru mila eta seiehun (33.600,00) euroko urteko kanona ordainduaz.

**Zortzigarrena.-** 2019ko ekainaren 21eko 2019/1065 Alkatetza Dekretuaren bitartez, ORBELA TABERNA Y SONIA TAPIA, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, FRONTON U.T.E. con CIF U-75221770 enpresari esleitu zitzaion erreferentzian aipatutako kontratua.

**Bederatzigarrena.-** 2019ko uztailaren 1ean, zegokion kontratua sinatu zen.

**Hamargarrena.-** 2020ko otsailaren 18an, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen, enpresak eskatutakoarekin bat etorriz, Beotibar pilotalekuko ostalaritza-eraikinaren jabari publikoko emakidaren gainean eratu nahi zen hipoteka onartzea, gehienez 600.000 euroko zenbatekoan eta hamaika urteko eperako.

*“Bankoa ha autorizado un préstamo para las reformas del edificio Frontón a Orbela Taberna y Sonia Tapia UTE con CIF: U75221770, con las siguientes características*

- *Importe máximo: 600.000 €*
- *Plazo máximo: 11 años*
- *Prenda – garantía de la concesión administrativa concedida por el Ayuntamiento de Tolosa para la explotación a 30 años del negocio del edificio Frontón.*

*Solicitamos al Ayuntamiento de Tolosa autorización para poder coger la garantía de dicha concesión en la operación notarial a firmar”.*

**Hamaikagarrena.-** 2020ko uztailaren 23an sarrera izan zuen Udal erregistroan, 5579 zenbakiarekin, Egoitz Goikoetxea Artola jaunak, ORBELA TABERNA Y SONIA TAPIA, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, FRONTON U.T.E. con CIF U-75221770 enpresaren izenean eta ordezkari gisa, aurkeztutako idatziak. Bertan Covid-19 pandemiak sortutako eraginen ondorioz, bi gauza eskatzen ditu:

Alde batetik, 2020ko apiril, maiatz, ekain eta uztailari dagozkion kanonaren ordainketatik salbustea.



**- Exoneración del pago del canon.**

Con anterioridad a la declaración del estado de alarma, el pasado 14 de marzo, a instancia de la UTE se estaban tramitando las concesiones de las licencias de las obras del proyecto de ejecución y de la actividad de restaurante y cafetería.

Como bien se sabe, desde la citada declaración del estado de alarma hasta el pasado mes de junio, la tramitación de los procedimientos administrativos ha estado suspendida razón por la que por una parte hasta el 3 de julio no se ha recibido el Decreto en el que se interesa la subsanación de deficiencias u omisiones del proyecto de ejecución y por otra parte la licencia de actividad se encuentra en tramitación ya que el plazo de información pública tampoco ha podido iniciarse, de hecho la publicación en el BOG es del día 15 de junio.

Por lo tanto y teniendo en cuenta estas anómalas circunstancias, tal y como se hizo anteriormente de manera verbal, a través de la presente se interesa al Ayuntamiento de Tolosa la exoneración del pago del canon de los meses de abril, mayo, junio y julio ya que durante estos meses la tramitación del expediente se ha visto totalmente afectada y condicionada por circunstancias ajenas a las partes. La razón por la que durante estos meses no se ha podido avanzar en la tramitación del proyecto, tal y como se ha indicado, es ajena a esta parte y desde luego que era imposible de preverla por lo que parece razonable que la administración acuerde la exoneración de los cánones.

Bestetik, 2020. urteari dagozkion hilabeteko kanonak, 2021., 2022. eta 2023. urteetan zehar ordaintzea, hainbanatuta.

**- Aplazamiento del pago del canon.**

De manera complementaria y en su caso de manera subsidiaria se solicita la aprobación del aplazamiento del pago del canon mensual hasta el próximo mes de diciembre.

Si bien ante el desarrollo de los acontecimientos y atendiendo a la propia duración de la concesión, todavía es relativamente pronto para sacar conclusiones definitivas, no parece descabellado pensar que a raíz de la pandemia el equilibrio concesional se pueda ver alterado o afectado pero esta parte, en estos momentos, no está cursando en ese sentido ninguna petición. Su solicitud responde a que el planing para financiar las obras se ha visto gravemente trastocado por lo que el aplazamiento del pago del canon sería un instrumento muy eficaz para la UTE y a su vez a la administración no se le ocasionaría ningún perjuicio, en definitiva, la concesión demanial no se vería afectada.

Cabe recordar que se trata de una concesión demanial a treinta años con un canon anual de 33.600€ . La petición simplemente se limita a aplazar los pagos correspondientes al presente ejercicio prorrateándolos a lo largo de los siguientes tres años. De esta manera a partir del próximo mes de enero a la cuota mensual ordinaria se le añadiría la parte proporcional de la cuota aplazada. La administración no estaría renunciando a nada simplemente se trata de posponer el pago de unos cánones (muy pocos si tenemos en cuenta la duración de la relación).



**Hamabigarrena.-** Kontratazio teknikariak 2020ko abuztuaren 19an igorritako txostenean, subjektu pasiboa martxoaren 14tik uztailaren 2a bitartean kanona ordaintzetik salbuestea proposatu zuen. Halaber, kontuhartzaileak urriaren 8an igorritako beste txosten batean, proposamena egin zuen Orbela taberna eta Sonia Tapia UTEri 2020ko kanonaren 12.173,28 euroak hogeita lau zatitan ordaindu ahal izateko zatikapena ematea eta horien ordainketa 2021eko urtarrilaren 10ean hastea, beti ere, zorraren % 20 (2.434,66 euro) eta 2020an sortzen diren interesak (66,89 euro), 2020ko abenduaren 10ean ordaintzen bazituen.

### **III.- EPEAK**

Hemen, modu laburrean jasotzen dira espedienteak izan dituen gorabeheren epeak, guztiz garrantzizkoa baita edozein ebazpen hartzeko garaian:

- 2019/07/01: kontratua formalizatu zuten.
- 2019/12/16: obra baimen eskaera aurkeztu zuten bisatutako proiektuarekin batera.
- 2020/01/09: dokumentazio osagarria aurkeztu zuen enpresak.
- 2020/02/10: dokumentazio osagarria aurkeztu zuen enpresak.
- 2020/03/14: prozedura eten egin zen alarma-egoeraren ondorioz.
- 2020/04/07: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Sailak igorritako aldeko baimena.
- 2020/04/19: Txosten teknikoa (kontrakoa) (Bi txosten daude: bata, martxokoa, GFako baimenaren aurrekoa, eta, bestea, apirilaren 19koa, GFaren baimenaren ondoren).
- 2020/06/01: prozeduren etenaldia altxatu zen eta izapidetzearekin jarraitu zen.
- 2020/07/01: proiektuaren eranskina errekeritu zitzaion enpresari; jakinarazpenaren irteera data: 2020ko uztailak 2.
- 2020/07/20: dokumentazio osagarria aurkeztu zuen enpresak (proiektuaren eranskina bisatu gabe).
- 2020/07/27: Dokumentazio osagarria aurkeztu zuen enpresak (proiektuaren eranskina bisatuta).

Aurreko data guztiak ikusita atera daitekeen ondorioa hau da: **2020ko martxoaren 14tik uztailaren 2ra arteko epeak ez dute konputatzen**, ekainaren 1etik (alarma-egoeratik etenaldia altxatzea) uztailaren 2ra arte (errekerimendua jakinarazi zitzaion arte) Udalak ez baitu izapiderik egin.

### **IV.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

#### **1.- Aplikatu beharreko legeria**

Emakida honetan 1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenak agintzen du.



Emakidaren plegua arautzen du jabari publikoko ondasunen erabilera pribatibo arrunta - emakida administratiboa-, eta ondorengo araudiaren pean dago:

- Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
- Toki Erregimenaren alorrean indarrean dauden xedapenen testu bategina, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, onartua, aplikagarri den heinean.
- Ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuak onartzen duen Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamendua.
- 1373/2009 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, Herri Administrazioaren Ondareari buruko legearen erregelamendua onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, baina aplikagarri zaizkion xedapenak, Lege horren 9.1 artikulua ezarritakoarekin bat.
- Arlo hauetan aplikagarri diren xedapenak: ingurumena, jabetxe jarduerak...
- Arlo hauetan aplikagarri diren xedapenak: laneko segurtasuna eta osasuna, arriskuen prebentzioa, ergonomia, sektoreko hitzarmen kolektiboak...
- Administrazio-legeria komuna, eta azkenik, osagarri gisa, zuzenbide pribatuko xedapenak.

## **2.- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua**

Emakida arautzen duten Administrazio Baldintza Partikularren Pleguetako (ABPP) 5. puntuan hau zehazten da:

### **5- EMAKIDAREN EPEA ETA OBRAK EXEKUTATZEKO EPE PARTZIALAK**

*5.1.- Emakidak gehienez 30 urte iraungo du, emakidaren dokumentua sinatzen denetik kontatzen hasita.*

...

*5.3.1- ...*

*Lanak Udalak onartutako proiektuaren arabera egingo dira, eta udalak ezarritako epeak bete beharko dira. Epe horiek ezingo dira 12 hilabetetik gorakoak izan.*

*5.3.2- Obrak hasteko epea: Jarduera eta lanen proiektua onartzeko udal-akordioa jakinarazi eta, gehienez, hilabete geroago zuinketa-egiaztapena egingo da, eta obrak orduan hasiko dira. Nolanahi ere, obra eta instalazioak egiteko gehieneko epea 12 hilabetekoa da, zuinketa-akta sinatzen denetik kontatzen hasita.*

*5.4.- Emakida exekutatzeko epea eta aurrekoan zehazturiko epe partzialak bete egin beharko ditu emakidadunak. Aipatutako epeak amaitu eta emakidaduna, bere erruz, berandu iritsi bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: emakida bertan behera uztea edo zigor ekonomikoak jartzea.*

*Bermea galtzeak edo zigor ekonomikoak ezartzeak ez du esan nahi Tolosako Udalak emakidadunak atzerapenek sortutako kalte-galerak jasotzeko eskubiderik ez duenik. Emakidaduna berandutze-egoeran jarriz gero, Administrazioak ez du interpelaziorik edo*



*azalpenik eman beharko.*

*Berandutzearen ondorioz sortutako kalte-galerak bermetik kenduko dira.*

Halaber, plegu bereko 7. puntuan hau zehazten da kanonari buruz:

**7.- EMAKIDAREN KANONA**

*Urtean 25.294,80 euroko gutxieneko kanon bat ezarriko da. Lizitatzailleak kopuru hori hobetu ahal izango du proposamen ekonomikoan. Aipatutako kanona 12 hilabetean hainbanatu ahal izango da, eta hil bakoitzeko lehenengo bost egunen barruan ordainduko da, aurreratutako hilekoetan.*

*Kanona urtero eguneratuko da, Lehiakortasuna Bermatzeko Indizeak urte bakoitzean izandako aldaketa kontuan hartuta.*

*Kanona zuzenbide publikoko diru-sarrera bat da. Kanona aipatutako epean ez ordaintzeak zerga-bilketaren arautegian aurreikusitako errekarquak sortuko ditu, eta dagozkion interesak ordaindu beharko dira. Horrez gain, emakida bertan behera utziko da eta dagozkion kalte administratiboak ezarriko dira, plegu honetan ezarritakoaren arabera.*

20. puntuan, emakidadunaren betebeharrei buruz, hau esaten da:

**20.- EMAKIDADUNAREN OBLIGAZIOAK**

**20.1- ORO HAR**

- a) Emakidaren helburu den lokaleko obren exekuzio- eta jarduera-proiektuak idaztea, Plegu honetan emandako epeetan.*
- b) Obrak eta instalazioak exekututzea plegu honetan adierazitako epeetan, bere arrisku eta zorira.*
- c) Emakidaren helburuaren ustiapena bere gain hartzea, beraren arrisku eta zori osora hartu ere, emakidei buruzko 2014/23/UE Zuzentarauan definitutako JARDUERA ARRISKUKO printzipioaren arabera.*
- d) Obrak egiteko behar diren udaleko lizentzia eta baimenak eskatzea, baita obrak egiteko eta jatetxeko jarduera ustiatzeko beharrezkoa den beste edozein baimen ere.*

**3.- Jabari publikoko emakida. Kanona salbustea**

Emakida hau, jabari publikoko emakida bat da eta, lehen aipatu bezala, pleguaz gain, 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua (RBEL) onartzen duenak, agintzen du. Lege horren 80. artikulua hau zehazten du:

*Artículo 80. En toda concesión sobre bienes de dominio público se fijarán las cláusulas con arreglo a las cuales se otorgare, y sin perjuicio de las que se juzgaren convenientes, constarán estas:*

*7.<sup>a</sup> Canon que hubiere de satisfacer a la Entidad local, que tendrá el carácter de tasa, y comportará el deber del concesionario o autorizado de abonar el importe de los daños y perjuicios que se causaren a los mismos bienes o al uso general o servicio al que*





*estuvieren destinados.*

Ikuspuntu materialetik, aztergai dugun kanonaren xedea da jabari publikoko ondasunaren emakidadunak bere onurarako egiten duen erabilera pribatiboa ordaintzea. Jurisprudentziak behin eta berriz adierazten duen izaera sinalagmatiko horrek oinarritzen du 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena (TRLRHL) 26.3 artikuluan:

*Artículo 26. Devengo.*

*3. Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el servicio público, la actividad administrativa o el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.*

Horrela, subjektu pasiboari egotz ezin dakioken arrazoiren batengatik emakidak legitimatzen duen erabilerarako aukerarik ez badago, kanonaren legitimitatea kentzen da diru-sarrera sinalagmatiko gisa, eta, beraz, ez da ordainaraziko. Halaber, geroago esango den bezala, ezin izan da gertatu kanona ordaintzea eragiten duen zerga-egitatea. Horrenbestez, **subjektu pasiboa kanona ordaintzetik salbuetsita geratuko litzateke martxoaren 14tik uztailaren 2ra bitartean.**

#### **4.- Kanona geroratzea**

Beotibar Frontoiko ostalaritza eraikina jatetxe eta kafetegi gisa ustiatzeko jabari emakidaren esleipenaren arabera, emakidadunak ordaindu beharreko kanona 33.600,00 eurokoa da, urteko, 2019ko uztailaren 1etik hasita.

Administrazio klausula partikularren pleguak zazpigarren klausulan adierazten du kanona urtero eguneratuko dela, Lehiakortasuna Bermatzeko Indizeak urte bakoitzean izandako aldaketa kontuan hartuta.

Lehiakortasuna Bermatzeko Indizearen aldaketa 2019ko ekainetik 2020ko ekainera % -2,54koa izan da. Horren arabera, 2020ko uztailaren 1etik aurrera emakidaren kanona, hilabetero, 2.728,88 eurokoa izango da, eta 2020ko kanona honela geratuko da:

urtarrila	2.800,00
otsaila	2.800,00
martxoa	1.400,00
apirila	0,00
maiatza	0,00
ekaina	0,00
uztaila	2.728,88
abuztua	2.728,88
iraila	2.728,88
urria	2.728,88
azaroa	2.728,88
abendua	2.728,88
<b>Guztira</b>	<b>23.373,28</b>

Emakidadunak 11.200,00 euro ordaindu dizkio Udalari aurtan. Beraz, eskatutako zatikapena 12.173,28 euroko zorrari dagokio.

Kanona zuzenbide publikoko diru-sarrera bat da.

Tolosako Udaleko zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko indarrean dagoen ordenantza orokorrak honela dio 9.1 artikuluan:

*1. Ordainketa atzeratzeko eta zatikatze eskariak Tolosako Udalak Ordenantza honetan*



*onartutako xedapenen arabera izapidetuko eta ebatziko dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Erregelamenduko 37.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki. Halakorik ez badago, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Erregelamenduan xedatua aplikatuko da.*

Artikulu horren 6. atalak honela dio:

*6. Bermeak eta irizpideak.  
Gehieneko atzeratze edo zatikatze epeak, bermeak eta egin beharreko aurrerapenak 2. eranskinean daude jasota.*

Aipatutako 2. eranskinaren arabera, 6.000,00 eta 12.000,00 euro bitarteko zerga zorrak, gehienez, urtebetean ordaindu beharko liriateke (12 hilabetetan), aurrerakinik egin gabe. Eta 12.000,00 eta 30.000,00 euro bitartekoak, gehienez, 2 urtetan, baina % 20ko aurrerakina egin beharko litzateke.

Udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko indarrean dagoen ordenantza orokorrak 9. artikuluko 5. atalean adierazten du atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko dutela.

### **5.- Alarma egoera**

2020ko martxoaren 14an, Ministroen Kontseiluak, 463/2020 Errege Dekretuaren bitartez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen, eta eten egin ziren terminoak eta sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epeak; horrek eragin zuzena izan zuen aipatutako emakidan, arestian aipatutako epeetan azaldu bezala.

Halaber, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre gitekoak, hauxe zehazten zuen 34.4 artikuluan:

*4. En los contratos públicos de **concesión de obras y de concesión de servicios** vigentes a la entrada en vigor de este real decreto-ley, celebrados por las entidades pertenecientes al Sector Público en el sentido definido en el artículo 3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, la situación de hecho creada por el COVID-19 y las medidas adoptadas por el Estado, las comunidades autónomas o la Administración local para combatirlo darán derecho al concesionario al restablecimiento del equilibrio económico del contrato mediante, según proceda en cada caso, la ampliación de su duración inicial hasta un máximo de un 15 por 100 o mediante la modificación de las cláusulas de contenido económico incluidas en el contrato. Dicho reequilibrio en todo caso compensará a los concesionarios por la pérdida de ingresos y el incremento de los costes soportados, entre los que se considerarán los posibles gastos adicionales salariales que efectivamente hubieran abonado, respecto a los previstos en la ejecución ordinaria del contrato de concesión de obras o de servicios durante en el período de duración de la situación de hecho creada por el COVID-19. Solo se procederá a dicha compensación previa solicitud y acreditación fehaciente de la realidad, efectividad e*



*importe por el contratista de dichos gastos. La aplicación de lo dispuesto en este apartado solo procederá cuando el órgano de contratación, a instancia del contratista, hubiera apreciado la imposibilidad de ejecución del contrato como consecuencia de la situación descrita en su primer párrafo y únicamente respecto de la parte del contrato afectada por dicha imposibilidad.*

Beraz, argi ikusten da hemen, aipatutako 8/2020 Errege-Lege Dekretuak kanpo uzten dituela jabariko emakidak.

### **6.- Ondarea**

6/2019 Legeak, maiatzaren 9koak, Euskal Kultura Ondarearenak, 33. artikuluan, hau zehazten du epeei buruz:

*33. artikulua.– Esku-hartzeak baimentzea.*

*1.– Oro har, foru-aldundiei dagokie lege honen bidez babesten diren kultura-ondasunetan egin beharreko esku-hartzeak baimentzea.*

*2.– Artikulu honetan aipaturiko esku-hartzeak baimentzeari buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko **epea hiru hilabetekoa izango da**, eskaera jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatuta. Epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, dirulaguntzaren **eskabidea ezetsi** egin dela ulertu beharko dute interesdunek, administrazio-isiltasuna dela eta.*

*3.– Lege honen bidez babesten diren ondasunetan egiten diren esku-hartzeei buruzko baimenak interesdunei eta Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailari jakinarazi beharko zaizkie*

Horren ondorioz, argi ikusten da Frontoiaren eraikinean edozein obra egin aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena igorri behar duela; horrek ekartzen du txosten hori gabe eskabidea ezetsita ulertu behar dela, eta, beraz, ez legoke obrak hasteko baimenik.

Aurretik esan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Sailak 2020ko apirilaren 7an igorri zuen aldeko baimena, baina ekainaren 1a arte ez zen altxatu prozeduren etenaldia eta Udalak 2020ko uztailaren 2a arte ez dio errekerimendu formalik egin emakidadunari.

### **V.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eskumena alkate-lehendakariarena izango litzateke, baina Tolosako Udalaren kasuan, 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zizkion Tokiko Gobernu Batzarrari, horien artean 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen lizitazioak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**



Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat hartuta, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, eta Kontratazioko udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea subjektu pasiboa kanona ordaintzetik salbuestea martxoaren 14tik uztailaren 2ra bitartean, hari egotz ezin dakiokkeen arrazoi bat gertatu baita, eta emakidak legitimatzen duen erabilerarako aukerarik egon ezenez, ezin izan da gertatu kanona ordaintzea eragiten duen zerga-egitatea.

**BIGARRENA.-** Orbela taberna eta Sonia Tapia UTE-ri 2020ko kanonaren 12.173,28 euroak hogeita lau zatitan ordaindu ahal izateko zatikapena ematea eta horien ordainketa 2021eko urtarrilaren 10ean hasia, beti ere, zorraren % 20 (2.434,66 euro) eta 2020an sortzen diren interesak (66,89 euro), 2020ko abenduaren 10ean ordaintzen baditu.

urtarrila	2.800,00
otsaila	2.800,00
martxoa	1.400,00
apirila	0,00
maiatza	0,00
ekaina	0,00
uztaila	2.728,88
abuztua	2.728,88
iraila	2.728,88
urria	2.728,88
azaroa	2.728,88
abendua	2.728,88
<b>Guztira</b>	<b>23.373,28</b>

Zatikapenaren zati bakoitzean ordaindu beharreko zenbatekoa erantsita doan taulan adierazten da. Zati bakoitzak gehituta darama dagokion berandutze interesen kopurua.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea interesdunari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

## **5. ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIAN ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABEENTZAKO INGURUNE IREKIKO GIZARTE ETA HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZE ZERBITZU-KONTRATUAREN LUZAPENA.**

### **I.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

Kontratuaren helburua	Tolosako udalerrian arrisku egoeran dauden adingabeentzako ingurune irekiko gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzu-kontratua.
-----------------------	---



Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzuetako Saila
----------------------	-----------------------------

## **II.- AURREKARIAK**

**Lehena.-** 2018ko martxoaren 6an, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, beste batzuen artean, aipatutako xedea duen kontratazio-espeditentea onartu eta lizitazioari hasiera eman zion. Lizitazio-prezioa 124.120,88 eurokoa zen (119.347,00 euro printzipala eta 4.773,88 euro % 4ko BEZa). Lizitazioa legearen arabera argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2018/03/08) eta proposamenak aurkezteko epean, NURA GIZARTE ELKARTEA (G-20779187) enpresak egin zuen eskaintza.

**Bigarrena.-** Behin kontratazio-jardunbide osoa egin ondoren, 2018ko apirilaren 16an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, beste batzuen artean, aipatutako kontratua NURA GIZARTE ELKARTEA (G-20779187) enpresari adjudikatu zion honako ezaugarri nagusi hauekin:

- Prezioa: 117.217,00 euro, printzipalari dagozkionak, eta BEZa salbuetsita.
- Epea: 2 urteko epea, kontratua formalizatzen zen egunetik kontatzen hasita. Hala ere, beste bi urtez, urtez urte, luzatzeko aukera aurreikusten zen.

**Hirugarrena.-** Horiek horrela, 2020ko apirilaren 17an bukatzen zen kontratua.

**Laugarrena.-** Kontratuaren amaiera-data aintzat hartuta, sarrera izan zuen udal erregistroan, 925 zenbakiarekin, Luz Clemente Morán andreak, NURA GIZARTE ELKARTEA (G-20779187) enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa, egindako eskaerak, non kontratuaren luzapena eskatzen zuen.

**Bosgarrena.-** Horiek horrela, 2020ko urtarrilaren 29an, Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak kontratuaren luzapenaren aldeko txostena igorri du.

**Seigarrena.-** Aurrekoaren ondorioz, kontratazio teknikariak luzapenaren aldeko txostena igorri zuen 2020ko urtarrilaren 29an. Bertan, honako hau proposatu zuen:

**Lehena.-** *Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak igorritako txostena ikusita eta legeak xedatutakoaz baliatuta, Tolosako udalerrian arrisku egoeran dauden adingabeentzako ingurune irekiko gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzu-kontratuaren luzapena onartzea, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako klausulekin bat eta udal kontu-hartzaileak aldeko txostena igortzen badu. Era berean, kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaitan eskumen duen organoak.*

**Bigarrena.-** *Kontratuaren luzapena gehienez, 2020ko apirilaren 18tik 2021eko apirilaren 17ra bitartean egingo da.*

**Hirugarrena.-** *Kontratuaren luzapenean ez da prezioa berrikusiko da; beraz, urteko zenbatekoa 117.217,00 eurokoa izango da, BEZa salbuetsita.*



Laugarrena.- Aipatutako zerbitzua 0500.227.04.231.00 aurrekontuko partidaren kargura finantzatuko da; horretarako eta aipatu bezala, dagokion kredituarekin hornitu beharko da.

Bosgarrena.- Organo-eskudunak luzapena onartzen badu, NURA GIZARTE ELKARTEA (G-20779187) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritzea kontratuaren luzapena formalizatzerara bertaratu dadin gehenez ere 15 eguneko epean.

Seigarrena.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko kontratazailearen profilean argitaratzea.

Zazpigarrena.- Erabaki honen berri ematea Ogasun eta Administrazio Finantzako Sailari, legezko txostena igor dezan, Tokiko Gobernu Batzarrari proposamena egin aurretik.

Zortzigarrena.- Luzapen honen oinarrizko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuak 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez.

**Zazpigarrena.-** Horiek horrela eta martxoaren erdialdean deklaratu zen alarma-egoerak baldintzatuta, gaia ez zen bideratu eta, horren ondorioz, zegokion luzapena ez zen egin, nahiz eta eginda zegoela pentsatu. Halaber, aipatu behar da hemen 463/2020 Errege Dekretuak eten egin zituela prozedurak eta epeak administrazioan; beraz, ezin izan zen espedientea behar bezala izapidetu.

**Zortzigarrena.-** Aurreko irregularitasuna zuzentzeko asmoarekin, kontratazio teknikariak 2020ko abuztuaren 20an txostena igorri zuen espedientea behar den moduan izapidetu ahal izateko.

**Bederatzigarrena.-** Udal kontuhartzaileak aldeko txostena egin zuen 2020ko urriaren 30ean.

### **III.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

**Araubide juridikoa:** Luzapenari dagokionez, bai Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 3. klausulak, bai bi aldeek sinaturiko kontratuaren 3. klausulak, kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa izango zela jasotzen dute. Bestalde, klausula berak kontratu horren epea beste bi urtez, urtez urte, luzatu ahal izango dela xedatzen du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 303. artikulua xedaturikoari jarraikiz.

Halaber, administrazio kontratu mota guztietako luzapenak direla eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 23. artikulua 2. atalak honako hau xedatzen du:

«2. Kontratuak behin edo gehiagotan luzatu ahal izango dira; betiere, luzapenak luzapen, kontratuaren bereizgarriak iraunaldi osoan ez aldatzekotan eta, kontratua esleitzeko



*lehiaketan, kontratuaren gehieneko iraupena kontuan hartu bada, luzapen eta guzti. Kontratazio-organoak erabakiko du kontratua luzatu edo ez. Luzatzea erabakitzen bada, enpresaburuak ezinbestean onartu beharko du luzapena, non eta kontratuak ez duen berariaz kontrakoa aurreikusten. Ezin da luzapenik izan bi aldeen isilbidezko adostasunaren bidez».*

Kasu honetan, proposatzen den luzapenak ohiko izaera du.

**Prezioen berrikuspena:** Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 4. klausulan azaltzen den bezala, luzapen honetan **prezioak ez dira berraztertuko**.

**Organo eskuduna.-** Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena kontratazio organoari dagokio.

Kasu honetan, kontratazio-organoa Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu ategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriaren I. atalean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera:

*«Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere».*

Baina kasu honetan, kontratu honen luzapena onartzeko organo eskuduna lizitazioa bera onartu zuen organoa da. Horrenbestez, **Tokiko Gobernu Batzarrak du kontratu hau luzatzeko eskumena**.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak igorritako txostena ikusita eta legeak xedatutakoaz baliatuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**



**LEHENA.**-Onartzea Tolosako udalerrian arrisku egoeran dauden adingabeentzako ingurune irekiko gizarte eta hezkuntzako esku-hartze **zerbitzu-kontratuaren luzapena atzeraeraginez, 2020ko apirilaren 18tik**, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako klausulekin bat etorrira, eta udal kontuhartzaileak aldeko txostena igortzen badu. Era berean, kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaitan eskumena duen organoak.

**BIGARRENA.**- Kontratuaren luzapena, gehienez, 2020ko apirilaren 18tik 2021eko apirilaren 17ra egingo da.

**HIRUGARRENA.**- Kontratuaren luzapenean **ez da prezioa berrikusiko**; beraz, urteko zenbatekoa **117.217,00 eurokoa izango da, BEZa salbuetsita**.

**LAUGARRENA.**- Zerbitzu hori **0500.227.04.231.00** aurrekontuko partidaren kargura finantzatuko da; horretarako, eta esan bezala, dagokion kredituarekin hornitu beharko da.

**BOSGARRENA.**- NURA GIZARTE ELKARTEA (G-20779187) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritza kontratuaren luzapena formalizatzerantz bertaratu dadin gehienez ere 15 eguneko epean.

**SEIGARRENA.**- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko kontratatzailearen profilean argitaratzea.

**ZAZPIGARRENA.**- Luzapen honen oinarrizko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez.

## **6. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

- **2020/1721DEKRETUA: 2020/47 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2020/1721 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**Zk.: 2020/1721**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarririk arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.





21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hau:

47. zenbakia duena, 155.188,76 eurokoa

Zerrenda horietan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

**EBAZTEN DU:**

**LEHENIK.-** Onartzea faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta faktura horiek ordaintzeko agintzea:

47. zenbakia duena, 155.188,76 eurokoa

**BIGARREN.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko urriaren 28an

Zinegotzi delegatua

Nire aurrean,  
idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

**7. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO URRIAREN 16TIK 22RA (2020/1664-2020/1696).**

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko urriaren 16tik 22ra bitartean (dk2020/1664dk 2020/1696) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1664	2020	16/10/2020	PERTSONALA	J.M. UDAL LANGILEAK ZERBITZU EGINKIZUNETAN ADSKRIBATZEA
1665	2020	16/10/2020	HIRIGINTZA	BERDURA PLAZA 3KO IGOGAILUA,EZKARATZA ETA OZTOPO ARKITEKONIKOAK EZABATZEKO OBRA AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA ONTZAT EMATEA ETA HONDAKINAK KUDEATZEKO FIDANTZA ITZULTZEA
1666	2020	16/10/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA 29KO JABEKIDEEK BALKOIAK GAURKO EGOERAN MANTENTZEKO ESKAERA UKATZEA
1667	2020	16/10/2020	IDAZKARITZA	TOLOSAKO EUSKAL HERRIA PLAZAKO ARKUPEETAKO ZOLADURA BERRITZEKO OBRA-PROIEKTUA ONARTZEA
1668	2020	16/10/2020	KONTUHARTZAILAZIA	2020ZZSI0015 - OKERREKO SARRERA ITZULTZEA
1669	2020	19/10/2020	HIRIGINTZA	BERMEAREN ITZULKETA ESKAERA-ELOSEGI PARKEA 1 ETA 2 FASEAK
1670	2020	19/10/2020	IDAZKARITZA	EH PLAZAKO 401 ZUZKIDURA BIZITOKIAREN ERABILERA LAGAPENA BERTAN BEHERA UZTEKO ESKAERA ONARTZEA
1671	2020	19/10/2020	UDALZAINGOA	1.994 ETA 2.007 URTEAK BITARTEAN, BORONDATEZ ORDAINTZEKO EPEAREN BARRUAN IZAPIDETU ZIREN TRAFIKOKO ESPEDIENTE ZEHATZAILEEN BAJAK.
1672	2020	19/10/2020	UDALZAINGOA	2.003 ETA 2.008 URTEAK BITARTEAN, BORONDATEZ ORDAINTZEKO EPEAREN BARRUAN IZAPIDETU ZIREN TRAFIKOKO ESPEDIENTE ZEHATZAILEEN BAJAK.
1673	2020	19/10/2020	UDALZAINGOA	2.009 ETA 2.017 URTEAK BITARTEAN, BORONDATEZ ORDAINTZEKO EPEAREN BARRUAN IZAPIDETU ZIREN TRAFIKOKO ESPEDIENTE ZEHATZAILEEN BAJAK.



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1674	2020	19/10/2020	HIRIGINTZA	AROTEGIETA KALEA 9KO ERRETEENAK ERREBISATZEKO EGIKARITZE AGINGUA
1675	2020	19/10/2020	HIRIGINTZA	EUSKAL HERRIA PLAZA 4-2. SOLAIRUKO ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
1676	2020	20/10/2020	ENPLEGUA	TOLOSALDEA GARATZEN 2020KO 2.EKARPENA.
1677	2020	20/10/2020	HIRIGINTZA	J.G.U. AURREKONTUA ONARTZEA "ESKUA" APLIKAZIOAN PARAMETRIZAZIO-SISTEMAREN AGINTE TAULA DISEINATZEKO
1678	2020	20/10/2020	HIRIGINTZA	AUZOTXIKIA 1EKO SUKALDEA ETA KOMUNA BERRITZEKO LIZENTZIA EMATEA
1679	2020	20/10/2020	HIRIGINTZA	BERDURA PLAZA 4KO OBRA (ELEKTRIZITATE HARTUNEA ERAMATEA) AMAIERA ONTZAT EMATEA ETA EZARRITAKO FIDANTZA ITZULTZEA
1680	2020	20/10/2020	IDAZKARITZA	2019ERRE0027KO KALTEAREN FRANKIZIA ORDAINTZEA
1681	2020	20/10/2020	IDAZKARITZA	PLAZA BERRIKO 59 ZENBAKIA DUEN GARAJEA ESKUALDATZEA. ASIER AROCENA GARPARSORO
1682	2020	20/10/2020	HIRIGINTZA	INTXUR AUZO ELKARTAEREN 2020KO DIRULAGUNTZA ETA HITZARMEN ONARPENA
1683	2020	21/10/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0019 ESPEDIENTEAREN KALTE ERREKLAMAZIOA ONARTZEA.
1684	2020	21/10/2020	HIRIGINTZA	AMAROTZ AUZOA 7-3A KOMUNA BERRITZEKO LIZENTZIA EMATEA
1685	2020	21/10/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	ESP.: 8078 - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ONARTU.
1686	2020	21/10/2020	HIRIGINTZA	LOPEZ MENDIZABAL PLAZA AZPIKO GARAJEETAKO JABEKIDEAK AURKEZTUTAKO ESKAERA ONARTZEA
1687	2020	21/10/2020	KONTUHARTZAILAZIA	45 ETA 46. FAKTUREN-ZERRENDAK ONARTU ETA FAKTURA BAKOITZAREN ORDAINKETA AGINTZEA
1688	2020	21/10/2020	IDAZKARITZA	UZZURRE 17-3B ETXEBIZITZA TASATUA ESKUALDATZEKO BAIMENA EMATEA
1689	2020	21/10/2020	HIRIGINTZA	REPSOL GASOLINDEGIAN ALDABA, P.K. 432,50 IBILGAILUA ELEKTRIKOETAN KARGA AZKARRA EGITEKO LIZENTZIA EMATEA

ESKUF1f508da-2c85-4012-b443-15c83d08b3d8



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1690	2020	21/10/2020	IDAZKARITZA	SAN FRANTZISKO 6KO JABEKIEEN KUOTAK ORDAINTZEA
1691	2020	22/10/2020	HIRIGINTZA	AGARAMUNDU PLAZA 5-3ºD BALKOIA ISTEKO LIZENTZIA UKATZEA
1692	2020	22/10/2020	IDAZKARITZA	ALHONDIGAKO C-43 GARAJEA ESKUALDATZEA. MARIA ARANTZAZU MUÑOZ GUERETA
1693	2020	22/10/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	ESP.: 6613 - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ONARTU.
1694	2020	22/10/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	ESP.: 5301 - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA ONARTU.
1695	2020	22/10/2020	KONTUHARTZAILETZA	BALIO ANITZEKO ETXEBIZITZA SOZIALEN 2020KO URRIA EPEALDIARI DAGOKION ERROLDA ONARTZEA.
1696	2020	22/10/2020	KONTUHARTZAILETZA	2020KO URRIA. AGARAMUNDU KALEA, 7, KONDEANEKO ALDAPA, 11 ETA EUSKAL HERRIA, 1B ETXEBIZITZETAKO ERABILERA LAGAPENA ETA KOMUNITATE GASTUEN LIKIDAZIOAK ONARTZEA.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 14:45ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**



TOLOSAKO  
UDALA

2020IGBA0032

## ERANSKINA I

**ONARTZEA HAUTAKETA PROBEN DEIALDIA ETA OINARRIAK, TOLOSAKO  
UDALEKO GIZARTE LANGILE PLAZA BAT HORNITZEKO.**

ESKUF1f508da-2c85-4012-b443-15c83d08b3d8



**Tolosako Udaleko plantillako gizarte-langile lanpostu bat  
betetzeko hautapoben deialdiaren oinarriak. Deialdia  
2018ko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagokio**

Lehena.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen xedea da txanda libreko eta oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez gizarte-langile lanpostu bat betetzea karrerako funtzionario gisa, hutsik dagoen udal honetako funtzionarioen plantillan, A2 sailkapen-taldean, Administrazio Bereziko Eskalan, Azpieskala Teknikoan, destino-osagarriaren 19. mailarekin eta urteko 16.366,14 euroko osagarri espezifikoarekin. Lanpostu honek 4. hizkuntza-eskakizuna du, eta derrigortasun-data iraungita dauka.

Launaldia Udalak urtero ezartzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta behar espezifikoak kontuan hartuta.

Hautaketa-prozesua gainditu eta izendatu ez diren izangaiek lan-poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta. Lan-poltsa hori erabili ahal izango da Tolosako Udalean aldi baterako enplegu-beharrak sortzen direnean.

**Bigarrena.- Lanpostuaren ezaugarriak**

Lanpostu honek zeregin hauek izango ditu:

Lanpostuaren misioa. Udalerriko gizarte-premiak antzematea eta atenditzea, eta udalerriko biztanleria gizarte zerbitzuen euskal sisteman sartzeko kudeaketa egitea.

Lanpostuaren zeregin nagusiak.

— Artatzen duten jendearekin laguntza harremana sortzea, jende horrek dituen benetako zailtasunak, interesak eta eskaerak adieraztea errazten duena.

— Gizarte eskubideak, araudiak, gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzu eta prestazioak ezagutzea, eta haien inguruan biztanleriari informazioa eta orientazioa ematea.

— Erabiltzaileen gizarte premien azterketa, balorazioa eta diagnostikoa egitea, horretarako beharrezkoak diren gizarte laneko teknika eta tresnak era egokian erabiliz: etxeetara bisitak, balorazio tresnak, elkarrizketa, gizarte txostena, etab.

— Hala dagokionean, esku-hartzea diseinatzea, eta, hortik

**Bases de la convocatoria de pruebas selectivas para la  
provisión de una plaza de trabajador/a social de la  
plantilla del Ayuntamiento de Tolosa correspondiente a la  
Oferta de Empleo Público del año 2018**

Primera.- Objeto de la convocatoria

El objeto de la presente convocatoria es la provisión en propiedad por turno libre y mediante el sistema de concurso oposición de una plaza de Trabajador/a Social como funcionario/a de carrera, vacante en la plantilla de funcionarios/as de este Ayuntamiento, encuadrada en el Grupo de clasificación A2, Escala de Administración Especial, Subescala Técnica, con un nivel 19 de complemento de destino y un complemento específico de 16.366,14 euros anuales. El perfil lingüístico requerido para este puesto de trabajo es el 4, con fecha de preceptividad vencida.

La jornada de trabajo será la que establezca anualmente el Ayuntamiento, atendiendo, en todo caso, a la naturaleza y necesidades específicas del puesto.

Las personas aspirantes que superen el proceso de selección y no sean nombrados/as integrarán una bolsa de trabajo, ordenada según la puntuación obtenida. Dicha bolsa de trabajo podrá ser utilizada cuando en el Ayuntamiento de Tolosa surja necesidades de empleo temporal.

**Segunda.- Características del puesto de trabajo**

Las funciones de este puesto de trabajo serán las siguientes:

Misión del puesto: Detectar y atender las necesidades sociales en el municipio y gestionar el acceso de la población del municipio al sistema vasco de servicios sociales.

Principales funciones del puesto.

— Establecer una relación de ayuda con las personas usuarias de forma que ésta favorezca la expresión de las dificultades, intereses y demandas que presentan las personas atendidas.

— Conocer los derechos sociales, normativas, servicios y prestaciones del sistema vasco de servicios sociales, y ofrecer información y orientación a este respecto a la ciudadanía.

— Estudiar, valorar y diagnosticar las situaciones de las personas usuarias, utilizando adecuadamente para ello las técnicas e instrumentos del trabajo social: visitas domiciliarias, instrumentos de diagnóstico, la entrevista, el informe social, etc.

— Cuando así proceda, diseñar la intervención, y a partir de



abiatuta, baliabideak eta gizarte-zerbitzu eta -prestazioak kudeatzea eta izapidetzea, eta eskura dauden banakako, familiako eta komunitateko baliabideak mobilizatzea, esku-hartzean dagoen pertsonaren edo familia-unitatearen egoera hobetzen edo, hala badagokio, mantentzen laguntzeko.

— Baliabide informatikoak behar bezala erabiltzea, eta esku-hartzeen erregistroak behar bezala egitea.

— Laguntza soziala ematea pertsonarekin eta/edo familiarekin egiten den esku-hartze prozesu osoan.

— Esku-hartze kasuen ebaluazioa eta jarraipena egitea.

— Kasuak bideratzea, jarraipena egitea, Udaleko beste sail eta azpisailekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, bai eta gizarte, hezkuntza, osasun, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta abarren arloko beste zerbitzu eta programa batzuekin ere.

— Erakundearen garatzen diren prozedura, hobekuntza-prozesuak eta programak ezagutzeko eta behar bezala erabiltzeko.

— Herritarrekiko zuzeneko arretaren eta komunitateari buruz duten ezagutzaren bidez hautematen dituzten behar eta errealitate berrien berri ematea arduradunei, oinarritzko gizarte-zerbitzuak bere zerbitzuak egokitu ditzan hautemandako gizarte-premia berriei erantzuteko.

— Gaur egun dauden arazo sozialak eta haien eboluzioa ezagutzeko eta aztertzea, bai eta gizarte-arloko garapen eta ekimen berrien jarraipen gertuko egitea ere.

— Baliabide, zerbitzu, programa eta araudiei buruzko informazioa biltzea, bilatzea, egunean edukitzea eta taldean partekatzea.

— Lana antolatzea, ezarritako helburuak betetzea bermatze aldera.

— Bere gain hartzea eskatuko zaizkion beste esku-hartze programa batzuen eta esleitutako beste lan batzuen kudeaketa eta tramitazioa, aurreko zereginak baztertu gabe.

— Bere lanpostuaren kategoriaren arabera eta gaitasun eta ahalmen profesionalen baitan esleitzen zaizkion bestelako eginkizunak egitea.

#### **Hirugarrena.- Izangaieen baldintzak**

Izangaiek eskatzen diren baldintza guzti-guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko ezarri den epean.

ahí gestionar y tramitar los recursos y la gestión de servicios y prestaciones sociales y la movilización de los recursos individuales, familiares y comunitarios disponibles para ayudar en la mejora o en su caso en el mantenimiento de la situación de la persona o unidad familiar en intervención.

— Utilizar adecuadamente las herramientas informáticas realizando pertinentemente los registros de las intervenciones.

— Prestar acompañamiento social durante todo el proceso de intervención con la persona y/o familia.

— Evaluación y seguimiento de los casos de intervención.

— Derivación de casos, seguimiento, coordinación y colaboración con otras áreas y departamentos del Ayuntamiento y otros servicios y programas del ámbito de los Servicios Sociales, educativo, de salud, de Organizaciones no lucrativas, etc.

— Conocer y utilizar adecuadamente los procedimientos, procesos de mejora y programas que se desarrollen en la institución.

— Informar a sus superiores de las nuevas necesidades y realidades que detectan a través de la atención directa con la ciudadanía y del conocimiento que tienen de la comunidad, con el fin de que el Servicio Social de base adapte sus servicios a la cobertura de las nuevas necesidades sociales detectadas.

— Conocer y analizar la problemática social existente y su evolución, así como llevar a cabo un seguimiento cercano de nuevos desarrollos e iniciativas en el ámbito social.

— Recopilar, buscar, mantener actualizada y compartir con el equipo del centro de Servicios Sociales la información sobre recursos, servicios, programas, normativas, etc.

— Organizar su trabajo de cara a garantizar el cumplimiento de los objetivos establecidos.

— Asumir la gestión y tramitación de otros programas de intervención que se le asignen y otras tareas que se le encomienden y sin perjuicio de las anteriores.

— Cualesquiera otras funciones que le sean encomendadas en coherencia con la categoría de su puesto de trabajo, con sus capacidades y aptitudes profesionales.

#### **Tercera.- Condiciones de las personas aspirantes**

Las personas aspirantes deberán reunir todas y cada una de las condiciones exigidas, en la fecha en que expire el plazo señalado para la presentación de solicitudes.



### 3.1. Naziotasuna.

Europar Batasuneko estatu bateko naziotasuna edukitzea,edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako naziokotasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

3.2. Eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen hamasei (16) urte beteta izatea eta nahitaez erretiratzeko adina ez izatea.

3.3. Gizarte-laneko gradu-titulua edo diplomatura lortzeko eskubideak izatea edo ordainduta izatea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, dagokion tituluaren homologazioa egiaztatzen duen baliozkotzea edo egiaztatzea eduki beharko da.

